

2022ko azaroaren 11, ostirala

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

4862

EBAZPENA, 2022ko urriaren 18koa, Segurtasuneko sailburuordearena, irabazi-asmorik gabeko elkarteei joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematen dizkiena.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko uztailaren 5eko Aginduak arautzen du joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko Euskadiko irabazi-asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea (2022ko uztailaren 18ko EHAA, 138. zk).

Agindu horren 11. artikuluekin bat etorritik, eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzako Balorazio Batzordearen txostena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean aipatzen diren eskatzaileei bertan zehazten diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau erakunde interesdun guztiei jakinaraztea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau berariaz jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 18a.

Segurtasuneko sailburuordea,
RODRIGO GARTZIA AZURMENDI.

2022ko azaroaren 11, ostirala

ERANSKINA

ESKABIDEEN, PUNTUEN ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Erakundea eta Proiektua	Puntuak	Dirulaguntza
Izan Fundazioa Joko patologikoa prebenitzeko eta horri buruz informatzeko proiektua.	100	17.239,00
Gizakia Fundazioa Heldu erronkari.	95	17.000,00
Asajer Egin ezazu apustu zure osasunaren alde.	90	10.795,00
Teknologien Erabilera Osasungarria Sustatzeko Elkartea (Pantailak lagun) Metabertso gida, apustuatarako lekua.	90	6.587,00
Etorkintza Fundazioa/ Fundación Etorkintza Nerabe eta gazteen artean ausazko jokoak eta kirol apustuak prebenitzeko tailerra.	83	19.073,00
Kiribil sarea Jokoan sartuko zara?	83	12.450,00
Adsis. Asko dago jokoan.	55	13.899,00
Sustrerra elkartea Euro bi.	36	5.562,00